

2023ko lehen hiruhilekoan 1.037 ezkontza izan ziren Euskal AEn, duela urtebete baino % 1 gutxiago

2019an izandako 1.015 ezkontzekin alderatuta, % 2,2ko igoera izan da

Eustaten datuen arabera, 2023ko lehen hiruhilekoan 1.037 ezkontza izan ziren Euskal AEn, hau da, lazko hiruhileko berean baino % 1 gutxiago (1.048). Ezkontza guztietatik, 997 ezkontza heterosexualak izan ziren, eta 40 sexu bereko pertsonen artekoak: 23 emakumeen artekoak eta 17 gizonen artekoak.

Hileka, urtarrilean eta otsailean % 4,9 eta % 21,3 jaitsi ziren ezkontzak, hurrenez hurren. Aitzitik, martxoan ezkontzak % 15,2 igo ziren, 2022ko martxoaren aldean. Datu horiek eta 2019ko hiruhileko bereko datuak alderatzen baditugu, pandemiaren aurrekoak, 1.015 ezkontza, % 2,2ko igoera gertatu da.

2023ko lehen hiruhilekoan, 100 ezkontzatik 96 baino gehiago zibilak izan ziren: % 96,8. Ehuneko hori % 95,5 izan zen 2022ko hiruhileko berean.

2023ko lehen hiruhilekoan izandako 1.037 ezkontzetan, Euskal AEn bizi ziren 977 gizon eta 989 emakume ezkondu ziren, eta gainerako ezkontideak kanpoan bizi ziren. 774 senarrentzat (% 79,2), lehen ezkontza izan zen; 189 dibortziatu eta 14 alargun, aldiz, berriro ezkondu ziren. Lehen aldiz ezkondu ziren emakumeen ehunekoa gizonen ehunekoaren antzekoa izan zen. Izan ere, ezkongabeak 782 izan ziren (% 79,1), dibortziatuak 194 eta alargunak 13.

Ezkontzak ezkontideen adinaren arabera banatuz gero, senarren artean, % 89,8k 30 urte edo gehiago zituzten; emazteen artean, berriz, ehuneko hori % 84,2ra jaisten da. lazko aldi berarekin alderatuta, proportzio horrek gora egin du gizonen kasuan (% 89,7 2022an), eta behera emakumeen kasuan (% 86,4 2022an).

Atzerriko nazionalitatea duten ezkontideen ehunekoak behera egin du

2023ko lehen hiruhilekoan, emakume ezkonberrien % 27,4k eta gizon ezkonberrien % 20,2k atzerriko nazionalitatea zuten. Ehuneko hori pixka bat jaitsi da 2022ko aldi berarekin alderatuta, bai emazteentzat, bai senarrentzat, orduan % 27,9 eta % 20,3 izan baitziren, hurrenez hurren.

Egoiliarren ezkontzak, inskripzio-lurraldearen, ezkontza-motaren, ospatzeko moduaren, aurreko egoera zibilaren, adinaren eta ezkontza-hilabetearen arabera (1). 2023/I

	2023/I		2022/IV			2022/I		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)
Ezkontzak	1.037	100,0	1.654	100,0	-37,3	1.048	100,0	-1,0
Araba / Álava	120	11,6	210	12,7	-42,9	134	12,8	-10,4
Bizkaia	531	51,2	784	47,4	-32,3	533	50,9	-0,4
Gipuzkoa	335	32,3	560	33,9	-40,2	336	32,1	-0,3
Euskal AETik kanpo	51	4,9	100	6,0	-49,0	45	4,3	13,3
Sexu desberdineko pertsonen artean	997	96,1	1.596	96,5	-37,5	1.011	96,5	-1,4
Kanonikoak	33	3,2	141	8,5	-76,6	47	4,5	-29,8
Zibilak	964	93,0	1.455	88,0	-33,7	964	92,0	0,0
Sexu bereko pertsonen artean	40	3,9	58	3,5	-31,0	37	3,5	8,1
Gizon artean	17	1,6	20	1,2	-15,0	17	1,6	0,0
Emakume artean	23	2,2	38	2,3	-39,5	20	1,9	15,0
Senar-emazteak	977	100,0	1.525	100,0	-35,9	1.000	100,0	-2,3
Ezkongabea	774	79,2	1.211	79,4	-36,1	793	79,3	-2,4
Alargunak	14	1,4	10	0,7	40,0	10	1,0	40,0
Dibortzuatuak	189	19,3	304	19,9	-37,8	197	19,7	-4,1
< 30 urte	100	10,2	118	7,7	-15,3	103	10,3	-2,9
30 - 39 urte	380	38,9	634	41,6	-40,1	354	35,4	7,3
= 40 urte	497	50,9	773	50,7	-35,7	543	54,3	-8,5
Espainiarrak	780	79,8	1.279	83,9	-39,0	797	79,7	-2,1
Atzerriko nazionalitatea	197	20,2	246	16,1	-19,9	203	20,3	-3,0
Emazteak	989	100,0	1.559	100,0	-36,6	1.002	100,0	-1,3
Ezkongabea	782	79,1	1.270	81,5	-38,4	803	80,1	-2,6
Alargunak	13	1,3	8	0,5	62,5	11	1,1	18,2
Dibortzuatuak	194	19,6	281	18,0	-31,0	188	18,8	3,2
< 30 urte	156	15,8	239	15,3	-34,7	136	13,6	14,7
30 - 39 urte	408	41,3	671	43,0	-39,2	421	42,0	-3,1
= 40 urte	425	43,0	649	41,6	-34,5	445	44,4	-4,5
Espainiarrak	718	72,6	1.199	76,9	-40,1	722	72,1	-0,6
Atzerriko nazionalitatea	271	27,4	360	23,1	-24,7	280	27,9	-3,2
Ezkontzaren hilabetea								
Uztaila	271	26,1				285	27,2	-4,9
Abuztua	244	23,5				310	29,6	-21,3
Iraila	522	50,3				453	43,2	15,2


(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2023ko Irailaren 25a

Iturria: Eustat, Ezkontzen Estatistika

Euskal AEko ezkontzak Euskal AEn inskribatuak, hilaren arabera

Guztira eta joera



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62